

OHARRA

Egindako gastuak ordainduak izan daitezzen **dagozkion jatorrizko fakturak Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren izenean aurkeztu behar dira**. Faktura horiek ezinbestean koordinatzaileak aurkeztu beharko ditu diru-laguntza jaso ahal izateko. Hemen daude fakturetan agertu behar diren datuak:

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza
Sarriena auzoa, z/g
48940 -LEIOA
Q-48/18001-B

Fakturak aurkezteko bi epe egongo dira:

- 1) 2017an burututako gastuentzako 2017ko abenduak 22.
- 2) 2018an burututako gastuentzako 2018ko ekainak 29.

Era berean, gastu bat finantzatua izan dadin plangintzan zehaztutako ekimenekin erlazionatuta egon beharko da.

Kontzeptu finantzagarriak honako hauek dira:

- Material suntsikorra (bulegoko materiala).
- Erreprografia (kartelak, posterrak,...).
- Espazioen (areto, gela,...) alokairua.
- Euskaraz idatzitako liburuen, aldizkarien eta egunkarien erosketa edo harpidetza.
- UPV/EHUko euskarazko aldizkari zientifikoen (Gogoa, Tantak eta Ekaia) erosketa edo harpidetza.
- UPV/EHUko euskarazko bildumen (ZIO, Legeak-Leyes eta Limes) erosketa.
- Taldean erregistratutako kideen dietak eta bidaiak (**koordinatzailearen sinadura bidezko oniritziarekin**).
- Euskaraz antolatutako ekimenak (bilerak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, bertso saioak, musika saioak, antzerki saioak,...).
- Luncha, bazkaria edo askaria (**beti egon beharko da antolatutako ekimenarekin lotuta**).